

Ingurumen Buletina

- 1. Ez dugu utziko berriz Garoña martxan jartzen!
kontzentrazioak marka berri bat hautsi du.***
- 2. Olaztiko Portlandek badu jada hondakinak
erretzeko baimena.***
- 3. Bogota ere Zero Zabor mugimendura gehitu da***
- 4. Detroit (EEBB), trantsizioan dagoen hiri post-
kapitalistaren eredua***
- 5. Gomendioa: Trantsizio Hiriak***

1. Ez dugu utziko berriz Garoña martxan jartzen!

2012 urteak albiste asko utzi digu Garoñako zentral nuklearraren inguruan. Lehenengoa 2013ko uztailaren 6tik aurrera martxan jarraitzeko aukera izan zen. Luzapena 2019 arte izango litzateke, beti ere Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluak (SNK) Fukushima ezbeharraren ondoren exijitutako obrak eta segurtasun neurriak betez gero. Lan hauek 120 milioi euroko inbertsioa eskatzen dute. Luzapena eraginkorra izateko, zentral gestionatzen duen Nuklenor enpresak (Endesa eta Iberdrola dira jabeak, bakoitzak %50 du) luzapen eskaera ofizialki egin beharko luke. Eskaera hau ez zen gauzatu, alde batetik exijitutako obren kostea ekonomikoki bidera ezina zela zioelako, eta bestetik, espainiar gobernuak erregai eta hondakin nuklearrei zerga bat gehitzeko lege proposamen bat aurkeztu zuelako. Zerga honek Garoñak urtean 153 milioi euro ordaindu behar izatea suposatuko luke. Irailaren 6an bukatu zen luzapen eskaera ofiziala egiteko epea, eta Nuklenorrek ez zuen eskatu, zerga berria ez zela Garoñako zentralarentzat bideragarria esanez.

Egoera berri honen aurrean ziurgabetasun egoera bat sortu zen eta albiste

berrien zain geundela, pasa den abenduaren 14an enpresak zentralaren jardueraren geldiaraztea aurreratu zuen. Abenduaren 16an Santa maria de Garoñako zentral nuklearra sare elektrikotik deskonektatu zen.

Nuklenorrek gelditzea behin betikoa dela baieztatu du eta tasa berriak erregaien gainean izango duen eraginak estatuko zentral zaharrena bideraezina egiten duela izan da arrazoi nagusia, urtero 153 milioi euroko ordainketa suposatuko baitu. Hala ere martxan jarraitzeari atea irekita utzi diote, baldin eta zerga hau Kongresuan onartuko ez balitz. Baina badirudi ate hau ere itxi dela, abenduaren 20an Energiaren Iraunkortasunerako neurri fiskalen legea onartu baitzen Kongresuan.

Eta zein da egoera gaur egun? "Ezinezkoa" da egoera honek atzera egin eta Garoñak 2013ko uztailetik aurrera martxan jarraitzea. Hau gertatu dadin gobernuak atzera egin beharko luke bere erabakian eta Nuklenorren neurrira egin beharko luke legea, eskandalagarria eta onartezina izango litzateke, nahiz eta ohiturik gauden gutxi batzuen mesederako eta gehiengoaren kalterako diren horrelako erabaki eta egoerak ikusten. Horregatik adi jarraituko dugu egoera hau, norbaiti Garoñak martxan jarraitu behar

duela bururatzen bazaio ere. Batez ere gain kosteak ez datozelako zerga berri honetatik soilik, segurtasun falta eta arazo teknikoetatik ere badatozelako, zentralak oso garestiak diren eta ezinezkoak diren inbertsioak behar dituelako. Honek esan nahi du azken urte hauetan Garoñak gutxieneko segurtasun maila betetzen ez zuela egon dela martxan, horregatik ezin dugu eta ez dugu onartuko itxiera hau behin betikoa ez izaterik.

2. Olaztiko Portlandek badu jada hondakinak erretzeko baimena

Nafarroako Gobernuak Cementos Portland Valderrivas S.A. enpresari Olaztiko instalazioan, biomasas gain, hondakin ez-arriskutsu ezberdinak erretzeko Ingurumen Baimen Bateratua (IBB) emango dio. Beraiek “erregai alternatiboen balorizazioa” deitzen duten hori. IBB ezinbesteko baldintza da enpresa honek hondakinak erretzeko. Eta Nafarroako Gobernuak ez du inongo zalantzarik izan baimen hau emateko, nahiz eta berain konpetentzia ez izan. Baimen hau emateko konpetentzia Ingurumen eta Uraren zuzendari nagusiarena da, baina Nafarroako Gobernuak arrazoi juridikoengatik konpetentzia hau bere gain hartu du eta bera izango da baimena emango duena.

Zementu fabrikaren helburu nagusietako bat izan da hondakinak erretzeko baimen hau eskuratzea, jarduera berri honekin beste modu batera lortuko ez lituzkeen onurak lortuko ditu.

Eraikuntza sektorea ez da errekuperatzen eta hurrengo urteetan ere ez da errekuperatuko. Hondakinak errez lortuko dituen diru sarreretatik zementu salmenten beherakada konpentsatuko du. Bestalde, zementu fabrikek arazo larria dute berotegi efektuko gasekin (BEG). Hondakin organikoak errez emisio kantitatea makilatuko dute, ez emisioak murriztuko direlako, materia organikoaren emisioak ez direlako konputatzen baino. Beraz, onura ekonomikoa lortzeaz gain, ingurumenaren ikuspuntutik beraiantzat maniobra perfektua da.

Baina hondakinak erretzea ez da ezertarako irtenbidea, osasun eta ingurumen arazo bat areagotzea da, enpresa honek berotegi efektuko gasekin betidanik izan du arazoa. Inongo onurarik jasoko ez dutenak nafarrak dira, herrialdeko hondakinen gestioan aldaketa izugarria emango baita, zero zabor helburutik gehiago aldenuz. Nafarroako Hondakinen Gestiorako Plan Integralak (PIGRN) planteatzen zuen erraustegia atzera bota zuenean bazirudien

Zero Zabor helburua serioago hartu zuela Nafarroako Gobernuak, baina ez da horrela izan.

Azken asteetan publikatu diren informazioen arabera, enpresak hondakinak erretzen asteko asmoa du 2013ko bigarren sei hilekotik aurrera. Eta zaborrik erreko ez duela esan arren (hiri hondakin solidoei buruz ari direla suposatzen da hau esaten dutenean), erraz birziklatu daitezkeen hondakinak erreko dituzte: gurpilak, plastikoak,... Portland-i emango zaion baimenak urtean 36.500 tona hondakin erretzeko balioko dio, tartean birziklatu daitezkeenak. Hondakin hauek material berri bezala balorea izango lukete, eta gainera birziklapen prozesuan eta beste sektore berri batzuetan lanpostuak sortuko lirateke.

3. Bogota ere Zero Zabor mugimendura gehitu da

Ezin dugu urtea hasi birziklapena eta Zero Zabor helburua aipatu gabe. Eta honen inguruan askotan idatzi dugun arren, ez dago sobera bere esanahiari errepasso bat ematea. Zero Zabor programen helburua hondakinak ez erretzea eta ez lurperatzea da, material hauek aprobetxatzea eta %100a ekoizpen ziklora bueltatzea da.

Zero Zabor filosofiak gaur egungo “naturatik hartu, kontsumitu, bota” kontsumo kultura alde batera uztea planteatzen du, eta kontsumo arduratsua, hondakinak sorlekuan sailkatzea, berrerabilpena, berreskuratzea, eta birziklapena oinarri dituen aprobetxamendu kultura zabaltzea bilatzen du. Hau posible izateko hiritarren parte hartzea ezinbestekoa da.

Zero Zabor filosofiaren oinarrizko printzipioak hurrengoak dira:

- Naturaren baliabideak errespetatu, kontserbatu eta birsortzea.
- Hondakin sortzailearen ardura.
- Kontsumo kontzientea eta arduratsua.
- Urrats ekologikoaren kontzientzia: gure ekintza bakoitzaren ingurumen inpaktua.
- Murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea.

Eta hau ez da Gipuzkoa, Katalunia edo Italiako leku gutxi batzuetako kontua bakarrik. Ezta ere herri txikietan soilik aplikatu daitezkeen eta hiri handiek izan ezin duten proiektua. San Frantzisko eta Erroma bezalako hirien kasua ezagutzen genuen. Orain Bogota gehitzen zaio Zero Zabor mugimenduari. Bogota Kolonbiako hiriburua da eta 8 milioi biztanle ditu.

Bogotako udalak Zero Zabor programa bultzatzen du. Programa hau hondakinak

sorlekuan sailkatzeko eta sailkatuta entregatzeko hiritarren konpromisoan oinarrituko du, hiriarekiko eta ingurumenarekiko betebeharra sortuz.

Latinoamerikako hiri handienetan (Mexiko DF, Sao Paulo, Buenos Aires, Rio de Janeiro, Lima, Bogota...) pertsona asko ekonomia informalean aritzen dira eta hauen jarduera nagusietako bat *birziklatzailearena* da. Bogotan soilik 7.000 eta 10.000 artean kalkulatzen da jarduera honetan ari diren pertsona kopurua. Kalean hondakinak jaso eta sailkatzera dedikatzen dira eta ondoren kudeatzaileei saltzen dizkiete beraien sostengua lortuz, materialen berrerabilpena posible eginez eta naturatik hartzea ekidinez. Udaletxeak birziklatzaile hauek zero zabor programan sartzeko plan bat egin du, hondakinen aprobetxamendua posible egiten duen lana duina eginez.

Honek birziklapenean garatzeko dagoen sektore bat dagoela erakusten du. Lan aukera hau gurera ere ekarri daiteke, non oraindik pausu gutxi eman ditugun Zero Zabor bidean, bizi dugun egoera ekonomikoan baztertu ezin daitekeen enplegu iturria izan daiteke. Beste arrazoi bat, eta pisu handikoa, Euskal Herrian Zero Zabor filosofia bultzatzeko.

4. Detroit (EEBB), trantsizioan dagoen hiri post-kapitalistaren eredua

Denbora luzea daramagu krisi honek suposatu duen kolapso sozioekonomikoa ikusten eta sufritzen. Krisi hau urbanistikoa ere bada. Hirietan erabiltzen ez diren espazioak eta abandonatuta dauden espazioak, ia desertuak, ari dira agertzen. Hau ez da prozesu berri bat, beste krisi batzuetan ere egoera berdina eman izan da eta ez zaie beti erantzun berdina ematen. Hiri guztian gainbehera ere ez da berdina izaten.

80. hamarkadan, errekonbertsio industrialaren garaian, Euskal Herriko zonalde industrialak gainbeheran sartu ziren eta egin zen apustua zonalde hauen urbanizazioa eta modernizazioa izan zen. Abandoibarra Bilbon honen adibide garbia da. Baina hau ez da eredu bakarra. Gure hirietako errekonbertsio urbanistikorako inbertsio handi eta plan urbanistikoen aldeko apustua egin zen. Gaur egungo egoeran ez dute zentzurik, ez dagoelako horretarako dirurik, baina baita gaur egungo krisiak beste beharrian batzuk utzi dituelako agerian, beste krisi batzuetan irtenbiderik eman ez zaien beharrak (krisi ekologikoa, zaintzen krisia,...). Eta hemen ezagutu dugun eredua obra handiena izan den arren, beste biziberritze eta hiri trantsizio

eredu batzuk ere badaude etorkizunean gure hiriak bizi eta planifikatzeko.

Michigan estatuko Detroit hiria (EEBB) aztertzeko eredu bat da. Hiri honek, automobilen industrian guztiz oinarrituta, 50. hamarkadan bere gailurrean zegoenean 1.850.000 biztanle zituen. Hiperrespezializatua zegoen sektore honen gainbeherarekin, 2010ean 710.000 biztanlerekin bakarrik geratu zen. XXI. mendeko lehen hamarkadan bakarrik 230.000 biztanle galdu zituen. Ez da hori okerrena: eskolak itxi dira, jantoki kolektiboetako dirua lapurtzen da, xantaiak, ordaindutako enplegurik ez dago, bazterketa sozial handia dago,... Indibidualismorako, autorako, hirien kanpoaldean eginiko urbanizazioetarako, gehiegizko mugikortasunerako eginiko hiri baten gainbehera izan da. Hiri honek sufritu duen gainbehera etorkizuneko gizarte post-kapitalistaren adibide garbia da askorentzat.

Abandonatutako etxe askoren erauzteak populazio dentsitatea galtzea areagotzen du. Hutsik dauden lurzoruen azalerak Parisen tamaina du dagoeneko. Honek elikagai desertu handiak eta janari denda edo supermerkatuetara irisgarritasun eskasa ekarri du. Elikagai osasuntsuak eskuratzeko zailtasunak hiri honetan bizi direnen osasuna

eskastea eragin du. Hiria utopia negatibo bihurtzeko prozesuan sartu da eta pertsona asko metropoliaren bihotzean abandonatuta geratu dira.

Baina azken hamarkadetan, auzoetako komunitateak hiria birsortzen ari dira. Industriaren aurreko garaiari begiratzuz ari dira berain indarra aurkitzen, Hiri nekazaritza agertu da bizikidetzaren antolatzearen, autoestimuko kolektiboaren hobetzeko elikadura segurtasuna bermatzeko eta ekonomia dinamizatzeko. Jarduera hau hiriaren aldaketa erradikalaren protagonista izaten ari da.

Komunitatearen indarra autoari borroka irabazten ari da. Detroiten bizitzen geratu dena bere oinarritzko beharrak asetzeko antolatu da. Elikadura gai estrategiko bihurtu zen eta hiri nekazaritza modu naturalean zabaltzen zen hiri osoan zehar. Askok izan zuten ideia bera eta inizatiba hartzen hasi ziren, ondoren etorri dira proiektu kolektiboak. Gaur egun 1.200 baratza kolektibo eta abeletxe daudela kalkulatu da. Mota ezberdinetakoak aurkitu daitezke: autoabastezimendurako baratzeak, auzune txikietarako ekoizpenak, langabezia daudenentzat proiektu handiagoak, etxeen erauzteagatik desplazatutakoek bultzatu dituztenak, baserri eskolak,... Proiektu hauek

zikloa konpostaje komunitarioarekin isten dute. Ekonomia sozialean oinarrituriko proiektu hauek ez dute Detroit paradisu bihurtu, baina behintzat bizitzeko leku hobea da orain.

Adibide oso urruna eta hemen gertatzeko ezinezkoa iruditzen zaigun arren, munduko herrialde garatuenetako batean gertatu dela kontuan izan behar dugu. Eta gure hirietara aplikagarria ez den eredu bat izan arren, adibide hau etorkizunean jasango ditugun klima aldaketa edo petrolioaren goi muga bezalako desestabilizazioei eta jasaten ari garen krisi sistemikoari aurre hartzeko erabili behar dugu.

Espero dezagun hemen egoera horretaraino ez iristea. Hau ekiditeko ekonomia eta lurraldea beste modu batera berrantolatu behar ditugu, eta zenbait eta lehenago egin hobe izango da.

5. Gomendioa: Trantsizio Hiriak

Hirien eraldaketan gehiago sakontzeko, oso interesgarria da “trantsizio hiriak” mugimendua ezagutzea. Horretarako fenomeno hau modu zehatzean azaltzen duen [artikulu](#) gomendatzen dizuegu, beharrezko aldaketarako gure inguruan egin dezakeguna azaltzen du.